

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Laburpena, Tokiko Gobernu Batzordearen 2025eko abuztuaren 29ko Ebazpenarena, gizarte-kohesioaren arloko irabazi-asmorik gabeko erakunde eta elkarteei 2025ean jarduerak egiteko dirulaguntzak emateko deialdia egiten duena

BDNS (Identif.): 854331.

Diru-laguntza orokorreari buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/854331>).

Lehena. Onuradunak

“Laudion gizarteratzea edota boluntarioria sustatzeko lanean diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeetarako dirulaguntzak” izena duen 1. sortako nahiz “Laudioko adinekoen zentroetarako dirulaguntzak” izeneko 2. sortako dirulaguntzak jaso ahalko dituzte Laudion eta gizarte-zerbitzuen edota pertsona nagusien inguruko politiken arloetan, adinekoen zentro soziokulturaletan, informazio-, balioespen-, orientazio-, prebentzio-, arreta-, gizarteratze- edota integrazio-jarduerak egiten dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, beraien izaera juridikoa edozein dela ere.

“Laudion Gazteriaren esparruan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteetarako dirulaguntzak” izeneko 3. sortako dirulaguntzak jaso ahalko dituzte Gazteriaren alorrean informazioa, prebentzioa, arreta eta gizarteratzea barne hartzen dituzten eta asoziazionismoa edo boluntarioria ekintzak bideratzen dituzten irabazi-asmorik gabeko erakundeek, beraien izaera juridikoa edozein dela ere.

“Laudion Hezkuntzaren alorrean diharduten irabazi-asmorik gabeko erakundeetarako dirulaguntzak” izeneko 4. sortako dirulaguntzak jaso ahalko dituzte aisialdi eta denbora libre hezigarriko ekintzak edota derrigorrezko hezkuntza formalaren nahiz derrigorrezko hezkuntza formalaren ondoko alorretako informazio-, prebentzio-, arreta-, gizarteratze- eta integrazio-jarduerak egiten dituzten erakundeek, beraien izaera juridikoa edozein dela ere.

“Laudion guraso elkarteek antolatzen dituzten ekintzetarako guraso elkarteei zuzendutako dirulaguntzak” izeneko 5. sortako dirulaguntzak jaso ahalko dituzte Laudio ikastetxeetan ekintzak egiten dituzten guraso elkarteek.

Ezingo dira onuradun izan dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantzan edo Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrean baztertzeko arrazoiren bat duten pertsonak edo erakundeak.

Nolanahi ere, irabazi-asmorik gabeko erakundeek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Egoitza soziala Euskal Herrian edukitzea eta jarduera guztiak edo horietako batzuk Laudio udalerrian bideratzea.

Legeri jarraikiz eratuak eta Eusko Jaurlaritzako elkarte eta erakundeen erregistroan inskribatuak egotea.

Laudioko elkarteen udal erregistroan inskribatuta egotea.

Euren programa eta aurrekontuak botere publikoen kontrolpean jartzea.

Bermatzea barne-demokrazia daukatela, hala gobernu organoen osaeran, nola funtzionamenduan.

Jarduera eta/edo proiektua osorik Laudion garatzea eta/edo proiektuaren hartzaileen artean gutxienez ehuneko 80 herritarrak izatea.

Ezingo dira aurkeztu beren estatutuetan jasotako helburu soziala dirulaguntzaren xedearekin zerikusirik ez duten erakunde, entitate edo elkarteak.

Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan ibilbide bat egiaztatzea; edo haren estatutu-xedeen, gizarte-xedearen edo fundazio-helburuaren artean berdintasuna sustatzea agertzea; edo diruz lagundutako proiektua edo jarduera gauzatuko duten pertsonen emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko prestakuntza espezifikoak izatea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak ezartzen duen bezala. Egiaztapen hori diru-laguntza ebatzi aurretik justifikatu beharko da, Balorazio Batzordeak zehaztutako epean, eta, betiere, Audioko Udalak 2024ko emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloko berariazko prestakuntza eman ondoren.

Bigarren. Helburua

Deialdi honen objektua da Audioko Udalak Gizarte Kohesiorako Arloaren bitartez eta nor-gehiagoka araubidean irabazi asmorik gabeko erakunde eta elkartei ematen dizkien dirulaguntzak ematea. Horretarako, tokiko elkarte-sarea, iraupena eta gizarte- eta hezkuntza-arloko lana sustatuko dira, proiektu bakoitzaren garapena bermatzeko funtsezko elementu gisa. Hori guztia dela-eta, jarduerak edo esku-hartzeak bideratu egin beharko dira gizarteratzea nahiz boluntariotza sustatzeko edota informazioa, prebentzioa, arreta, gizarteratzea nahiz integrazioa bultzatzeko, eta hezkuntzaren, nahiz gazteriaren esparrukoak ere izan ahalko dira aisialdi eta denbora libre hezigarriko ekintza gisa edo informazio-, prebentzio-, arreta- edota gizarteratze-ekintza gisa planteatuta, eta, nolabai ere, Audio udalerrian bideratu beharko dira edo interesekoak izan beharko dute udalerriako.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Audioko Udaleko Tokiko Gobernu Batzarraren 2025eko abuztuaren 29ko erabakiaren bidez onartu ziren.

Laugarrena. Zenbatekoa

Zuzkidura ekonomikoa 72.000,00 eurokoa da guztira, eta gastua babesten duten aurrekontu aplikazioak honako hauek dira:

1. Lotea: 25.000,00 euro: 0601-2311-481.22, Laudion gizarteratzea edota boluntariotza sustatzeko lanean diharduten irabazi asmorik gabeko gizarte erakundeetarako dirulaguntzak.
2. Lotea: 22.000,00 euro: 0603-3372-481.00, adinekoen zentro soziokulturaletarako dirulaguntzak.
3. Lotea: 5.000,00 euro: 0602-3371-481.00, Laudion gazteriaren esparruan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteetarako dirulaguntzak.
4. Lotea: 5.000,00 euro: 0602-3231-481.00, Laudion hezkuntzaren esparruan diharduten irabazi asmorik gabeko elkarteetarako dirulaguntzak.
5. Lotea: 15.000,00 euro: 0602-3231-481.25, Laudion guraso elkarteek antolatzen dituzten ekintzetarako guraso elkartei zuzendutako dirulaguntzak.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hogei egun baliodun, ALHAOn argitaratu eta biharamunetik aurrera.

Laudio, 2025eko abuztuaren 29a

Alkate-Udalburua

AINIZE GASTAKA MARTINEZ